

2011ko ekaina



**“PASAIKO PORTUAN ARRAIN FRESKOAREN LEHEN SALMENTAN EDO  
ENKANTEAN ARITZEKO BALDINTZA-ORRIAK”**



### **1. artikulua.- Lege-oinarria.**

Baldintza Orri hauek bat datoz Interes Orokorreko Portuen Araubide Ekonomikoari eta Zerbitzuak Emateari buruzko 48/2003 Legea aldatzen duen 33/2010 Legearen 86. eta 87. artikuluetan xedaturikoarekin.

### **2. artikulua.- Aplikazio-eremua.**

Pasaiako Portuko Agintaritzaren lonjetan arrain freskoaren lehen salmentan edo enkantean aritzeko, armadoreak Baldintza Orri hauek bete beharko ditu.

### **3. artikulua.- Arrain Freskoaren Saltzailea.**

Baldintza Orri hauen ondorioetarako, Arrain Freskoaren Saltzailatzat hartuko dira, itsasontziko armadorearen ordezkartzan, Pasaiako lonjan arraina saldu edo enkantean jartzen duten eta horiekin zerikusia duten merkataritza-jarduerak gauzatzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko baimenduak.

### **4. artikulua.- Arrain Freskoaren Saltzaileak dituen erantzukizun eta betebeharrak.**

Arrain Freskoaren Saltzaileak behar bezala bete beharko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko araudia, Baldintza Orri hauek eta, oro har, Portuko Zerbitzuen eta Poliziaren Araudi Orokorra eta Portuko Ordenantzak, eta hala badagokio, baita hura garatuko duten xedapenak ere.

Portuan arrain freskoaren erosle (xehekari) edo handizkari gisa aritzeko Pasaiako Portuko Agintaritzaren baimena duten arloko industrialari eta merkatariei bakarrik saldu ahal izango die.

Arrain Freskoaren Saltzaileak arrantzari dagokion tasa eta jardueraren tasa ordaindu beharko dizkio Portuko Agintaritzari, portuko zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasa eta tarifei buruzko araudian aurreikusitako hitzetan.

Arrain Freskoaren Saltzaileak saltzeko agindu zaion arrainaren arduraren hartuko du armadoreak arraina ematen dion unetik hura saldu edo, saltzen ez badu, haren jabeari itzultzen dion arte.

Arrain Freskoaren Saltzailea izango da manipulatzeko edo saltzeko eskatu zaizkion produktuen erantzule bakarra, eta baita pertsona edo gauzei eragindako kalte-ordainena ere, Portuko Agintaritzarenak izan nahiz hirugarrenenak izan, baldin eta kalte horiek bere jardueren, hutsegiteen edo axolagabekerien ondorio izan badira.

### **5. artikulua.- Pasaiako portuan jarduteko baimena**

Arrain freskoa saldu edo hura enkantean atera ahal izateko, Pasaiako Portuko Agintaritzaren baimena eskuratu beharko da aurretiaz. Horretarako, dagokion eskabidea egingo zaio idatziz Pasaiako Portuko Agintaritzari eta, horrez gain, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoaren baimena.
- b) Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta eman izanaren frogagiria.



c) Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren (IFZ) kopia eta, pertsona juridikoen kasuan, sozietatearen eraketa-eskriuraren kopia, haren estatutuak, ahalordeak eta Merkataritza Erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria.

d) Antolamenduari buruzko azalpen-memoria, edo bestela esanda, merkataritza- eta finantza-antolamenduari eta langileen antolakuntzari buruzkoa. Bertan adieraziko dira zein armadore edo enpresa ordezkatzan dituen, zer arrantza mota egiten duen —itsasertzekoa, alturakoa edo bestelakoa—, urtean zenbat arrain saltzea aurreikusten duen, eta horrek lehen salmentan izan dezakeen balioa eta eskaera justifikatuko duen beste edozein datu. Eskatzailea aurreko urteetan ere honetan aritu bada, aurreko urtean saldutako bolumena ere adieraziko du.

e) Horren ordezkaritza izango duten pertsonen izena eta NAN; behar bezala egiaztatu beharko da dagokion ahalduz-egiriarekin.

f) Helbidea, telefono-, telefax- edo telex-zenbakia, edo helbide elektronikoa.

g) Erregistroan inskribatzeko eskaera egin ondoren gauzatutako aldaketa guztiak Portuko Agintaritzari jakinarazteko konpromisoa, baldin eta aldaketa horiek orain arte aipatutako atalei eragiten badiete.

h) Baldintza Orri hauetako 7. artikuluan aipatzen den fidantza jarri izanaren ziurtagiria.

i) Baldintza Orri hauetako artikulua ezagutu eta onartzen dituela dioen berariazko adierazpena.

#### **6. artikulua.- Baimendu eta inskribatzeko eskaeren ebazpena.**

Administrazio Kontseiluari edo horretarako eskumena duen Pasaiako Portuko Agintaritzako pertsonari dagokio interesatuei baimena ematea.

Pasaiako portuan jarduera hau garatu ahal izateko egindako baimen-eskaeren ebazpena interesatuei jakinaraziko zaie; era berean, Portuan garatu nahi den jardueraren baimenak barne hartzen dituen baldintza zehatzak jakinaraziko zaizkie. Baimena ukatu egin ahal izango da honako kasu hauetan: Baldintza Orri hauek betetzen ez direnean, eskatzaileak Portuko Agintaritzarekin zorrak dituenean, berme tekniko eta ekonomiko egokiak eskaintzen ez direnean, edo Pasaiako Portuko Agintaritzak eskatzen dituen beste baldintza batzuk betetzen ez direnean.

Baldintza Orri hauetan aipatzen diren jarduerak horretarako baimendutako pertsona fisiko edo juridikoei bakarrik gauzatu ahal izango dituzte Portuan. Baimen horiek sei urteko iraupena izango dute eta baliogabetu egin ahal izango dira Baldintza Orri hauetako 9. artikuluan aipatzen diren kasuetan. Baimena eman ostean, baimendutako pertsona fisiko edo juridikoa Pasaiako Portuko Agintaritzaren Arrain Freskoaren Saltzaileen Erregistroan inskribatuko da.

#### **7. artikulua.- Fidantzak.**

- a) Baldintzen Orri hauetan arautzen den jarduerak berekin dituen obligazioengatik Portuko Agintaritzaren aurrean erantzuteko, Arrain Freskoaren Saltzaile bakoitzak sei mila euroko (6.000€) fidantza bat eratuko du Portuko Agintaritzaren alde.
- b) Fidantza horiek urtero eguneratu ahal izango dira Portuko Agintaritzaren irizpideen arabera, aurreko ekitaldiko jarduera aintzat hartuta. Eguneratze edo berrikuspen horiek eragindako fidantza-aldaketak hilabeteko epean erregularizatu beharko dira, Portuko Agintaritzak zenbatekoaren aldaketa jakinarazten duen unetik kontatzen hasita.



- c) Fidantza horiek ordaintzeko —Arrain Freskoaren Saltzaileak Portuko Agintaritzaren aurrean dituen betebeharrei erantzuteko moduan finkatuko dira beti—, abala (bankuaren berme nahikoa) edo zuzenbidean onartzen diren gainerako bitartekoak erabili ahal izango dira, betiere Portuko Agintaritzak eskaintako ereduak deskribatzen diren hitzetan.
- d) Fidantzak Portuko Agintaritzaren lehendakariaren izenean eratuko dira. Abalen kasuan, sinadurek askietsita egon beharko dute.
- e) Baimena irautzen bada, eta interesatuak Portuko Agintaritzarekin zituen baldintzak bete ez izanagatik fidantza osoa nahiz haren zati bat galdu duen kasuetan izan ezik, hura itzuli edo kitatu egingo da, hala badagokio, Baldintza Orri hauetako 4. artikuluan xedaturiko likidazioak ordaindu ostean.
- f) Hartzekodunen konkurtsoko egoera legalen kasuan, aurrerantzean Pasaiako Portuko Agintaritzari eskatuko zaizkion zerbitzuen zenbatekoa ordaindu beharko da aurretiaz. Bestela, zerbitzu horiek ukatuko zaizkio.

#### **8. artikulua.- Portuko Agintaritzak fidantza erabiltzea.**

Arrain Freskoaren Saltzaileak Baldintza Orri hauetako 4. artikuluan aipatzen diren likidazioen ordainketatik eratorritako diru-erantzukizunak ez betetzeak edo 10. artikuluan zehaztutako tasa ez ordaintzeak aurretiaz jarritako fidantza erabiltzea eragingo du.

Aurreko paragrafoan aipatutakoa betetzearren Portuko Agintaritzak fidantza osoa nahiz zati bat erabili beharko balu, Arrain Freskoaren Saltzaileak berriz jarri edo osatu beharko du fidantza hilabete bateko epean, Portuko Agintaritzak hura erabili duen egunetik kontatzen hasita. Interesatuak ez badu epe horretan fidantza berriz jartzen edoosatzen, baimenari uko egiten diola ulertuko da eta baja emango zaio Erregistroan, Baldintza Orri hauetako 9. artikuluan aurreikusitako izapideei jarraiki, betiere dagozkion ondorioei kalterik egin gabe, hura zordun gertatuz gero.

Fidantza berriro jarri edo osatu gabe dagoen bitartean, Portuko Agintaritzak aurretiaz eratu dadila eskatu ahal izango du bere eskumenaren arloan eskaintzen diren zerbitzu-tasak kobratzen direla bermatzeko.

#### **9. artikulua.- Baimena irautitzea.**

Portuan Arrain Freskoaren Saltzaile gisa aritzeko baimena irautita geratuko da honako kasu hauetan:

- a) Dagokion Autonomia Erkidegoko baimena irautitzen denean.
- b) Norberak hala eskatzen duenean.
- c) Portuko Agintaritzak baliogabetzen duenean. Kasu honetan, jarduera uzteko epea urtebetekoa izango da gutxienez eta Arrain Freskoaren Saltzaileak ez du kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik izango.
- d) Heriotza, gerora gertatutako ezgaitasuna edo porrot egitea, pertsona fisikoen kasuan.
- e) Nortasun juridikoak porrot egiten duenean edo hura likidatu edo desagertu egiten denean, Arrain Freskoaren Saltzailea pertsona juridiko bat denean.
- f) Fidantza Baldintza Orri hauetako 7. eta 8. artikuluetan zehazten den moduan eratu, osatu edo eguneratzen ez denean.
- g) Baldintza Orri hauetako 6. artikuluan adierazten den epea amaitzen denean.
- h) Baldintza Orri hauetan xedatzen diren baldintzak behin eta berriz betetzen ez direnean.
- i) Portuko Agintaritzak xedatzen duen gainerako kasuetan.



Artikulu honetan aipatzen diren baimena iraungitzeko arrazoiren bat gertatzen bada, Portuko Agintaritzako Zuzendaritzak interesatuari jakinarazi eta hamabost eguneko epea emango dio honek egokitzen jotzen dituen alegazio idatziak egin ditzan, baimena norberak nahi duelako edo epea amaitu delako iraungi den kasuetan izan ezik. Epe hori amaitzen denean, Administrazio Kontseiluak edo horretarako eskumena duen pertsonak baimena iraungi dela adierazi ahal izango du ebazpen arrazoitu bidez.

Baimena iraungi ostean, pertsona fisiko edo juridikoa Erregistroko inskripziotik kanpo geratuko da.

Baimena iraungitzen denean, Portuko Agintaritzak ez du inolako erantzukizunik izango titularraren aurrean, eta ez du inolako ardurarik izango titularrak izan zitzakeen eta aldi baterako edo behin betiko etenda geratu diren ekonomia-, lan- eta kontratu-arloko betebeharrak edo bestelako betebeharrak dagokienez.

#### **10. artikulua.- Tasak.**

##### a) Arrantza freskoaren tasa (T-4)

Arrain freskoa saldu edo enkantean ateratzeko baimena duen titularrak dagokion tasa ordainduko du Portuko Agintaritzaren alde. Tasa hori kalkulatu eta ordaintzeari begira, Interes Orokorreko Portuen Araubide Ekonomikoari eta Zerbitzuak Emateari buruzko azaroaren 26ko 48/2003 Legea aldatzen duen 33/2010 Legearen 16. artikulua hartuko da kontuan.

##### b) Jarduera-tasa

Arraina saldu edo enkantean ateratzeko jarduera edo zerbitzua eskaintzeko baimena duen titularrak dagokion jarduera-tasa ordainduko du Portuko Agintaritzaren alde, 33/2010 Legeak aldatzen duen 48/2003 Legeko 11. artikulua araberak.

Era berean, zerbitzua eskaintzen duen pertsonari emakida edo baimen bat eman bazaio, honek dagokion okupazio-tasa ordaindu beharko du. Ustiaketa- edo eraikuntza-fidantzek tasen ordainketa bermatzen duten arren, Portuko Agintaritzak premiamendu-prozedura erabili ahal izango du horiek kobratzeko, 33/2010 Legeko 9. artikulua araberak.

#### **11. artikulua.- Harremanak Portuko Agintaritzarekin.**

Arrain Freskoaren Saltzaileek Portuko Agintaritzak finkatutako bitartekoak, agiriak eta formatuak erabiliko dituzte harekin harremanetan jartzeko. Era berean, arrainaren salmenta hobeto antolatzea eta kontrolatzearren, Portuko Agintaritzak agintzen dituen neurri guztiak hartu beharko dituzte.

#### **12. artikulua.- Zergaren, lanaren eta gizarte-segurantzaren arloko betebeharrak.**

Eskatzaileek behar bezala egiaztatu beharko dute indarrean den zergaren, lanaren eta gizarte-segurantzaren arloko legerian xedaturiko betebeharrak betetzen dituztela.

a) Eskatzaileek zergaren arloko betebeharrak egunean dituztela ulertuko da Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 13. artikuluko 1. atalean aurreikusitako egoerak betetzen direnean. Egoera horiek betetzen direla egiaztatzeko, artikuluko horretako 2. atalean araututakoa hartuko da kontuan.



b) Lan-izaerako betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, eskainiko diren zerbitzuen lan-arloko erantzukizunpeko aitortpena edo ziurtagiri ofizialak aurkeztu beharko dira; honako hauek zehaztu beharko dira gutxienez:

- 1.º Laneko arriskuen prebentziorako legeria betetzen dela.
- 2.º Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko legeria betetzen dela.
- 3.º Zerbitzua betetzeko langileen lanaldi eta txandak.

c) Eskatzaileek Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak egunean dituztela ulertuko da Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 14. artikuluko 1. atalean aurreikusitako egoerak betetzen direnean.

Egoera horiek betetzen direla egiaztatzeko, artikuluko horretako 2. atalean araututakoa hartuko da kontuan.

Arrain freskoa saltzeko baimena duten titularrek egunean mantenduko dituzte arestian aipatutako zergaren, lanaren eta gizarte-segurantzaren arloko betebeharrak, baimena indarrean den bitartean.

### **13. artikulua.- Enpresako langileak.**

Baimena jaso eta Erregistroan inskribatzen denetik hamar eguneko epean, Arrain Freskoaren Saltzaileak behar bezala jakinarazi beharko dio Portuko Agintaritzako zuzendariari nor izango den edo izango diren bere ordezkariak jarduera garatu, aginduak jaso eta kontsultak nahiz eskaerak egiteko, eta, horrez gain, ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dio horiek ordezkatzeko dituztenean. Portuko Agintaritzako zuzendariak saltzailearen ordezkariak ukatu ahal izango du ebazpen arrazoitu bidez.

Era berean, kaiko gune mugatuetan sartu behar duten pertsonen izenak jakinarazi beharko dizkio uneoro Portuko Agintaritzako zuzendariari, horiei gune mugatuetan sartzeko baimenak eman eta hauek Arrain Freskoaren Saltzailearen jarduerarekin loturiko lanak gauzatu ahal izan ditzaten.

### **14. artikulua.- Enpresaren tresneria eta bitarteko lagungarriak.**

Enpresaren tresnak portu-eremuan erabili ahal izateko, behar bezala bete beharko dira Portuko Zerbitzuen eta Poliziaren Araudi Orokorrean xedatzen diren izaera orokorreko baldintzak eta jarduerarako baimena jasotzean finkatu diren baldintza bereziak; horrez gain, Portuko Agintaritzako zuzendariak erabilera horretarako baimena eman behar du.

Partikularren tresneriari dagokionez (kaxak, eskorgak, gurdiak, mahaiak, baskulak eta jarduerarako beharrezkoak diren gainerako makina eta objektuak), tresna guztietan jabearen izena, inisiala edo bereizgarria adieraziko da, eta hala badagokio, baita horien tara eta karga-gaitasuna ere. Portuko Agintaritzako zuzendariak uste badu tresna horietakoren batek ez dituela xede den jarduerarako baldintza egokiak betetzen, enpresak hura baztertu beharko du zuzendariak adierazitako epea igaro aurretik; bestela, Portuko Agintaritzak berak baztertuko du haren izenean, dagokion zigorrari kalterik egin gabe.

Arestian aipatutako partikularren tresna guztiak eta beharrezkoak izan litezkeen gainerako elementuak Portuko Agintaritzak agindutako lekuan utziko dira, egunero, lana amaitzean. Leku horretatik kanpo aurkitzen diren elementu guztiak Portuko Agintaritzako zerbitzuek jasoko dituzte eta ez dira jabeen eskuetara itzuliko bilketa horrek eragin duen kostua ordaindu arte, betiere dagozkien zigorrei kalterik egin gabe.



### **15. artikulua.- Ingurumena babestu beharra**

Ingurumenaren arloan indarrean den legeria betetzen dela bermatu beharko da, lonjan aritzeko baimena duen titularraren lan eta jardueri eragin diezaikeena, batik bat hondakin, isurketa, eta zarata eta partikulen igorpenari dagokionez; beraz, administrazio eskudunek agindutako baimenak eta lizentziak eskuratu beharko dira jarduera horiek gauzatu ahal izateko. Hori guztia zerbitzua eskaini ahal izateko eta horiek indarrean mantenduz.

Horretarako, IP-VIG-001 Prebentzio Orokorrerako Jarraibidearen 5. atalean xedaturikoa ere bete beharko da, 2011ko otsailaren 23ko GAOn argitaratua eta I. Eranskin gisa erantsia: "Zerbitzuko portu-eremuko sarrera, bide eta jabari publiko komunean sartzeari, zirkulatzeari, egoteari eta prebentzioko neurri eta arrisku orokorrei buruzko informazioa".

### **16. artikulua.- Arau-hausteak eta zigorrak.**

Arau hauek betetzen ez direnean, Portuko Agintaritzak dagozkion zigorrak ezarriko ditu Estatuko Portu eta Merkataritza Nabigazioari buruzko Legea, haren xedapen osagarriak eta Portuko Zerbitzuen eta Poliziaren Araudi Orokorra eta haren Portuko Ordenantzak kontuan hartuta, izan ditzakeen erantzukizun zibil eta penalez gain.

### **17. artikulua.- Aseguruak.**

Baldintza Orri hauetako 4. artikuluko bosgarren paragrafoan aipatzen diren jarduera, hutsegite edo axolagabekeriek eragindako kalte-ordainei erantzuteko, Arrain Freskoaren Saltzaileak aseguru bat hitzartu beharko du hirugarrengeoi eragin dakizkiekeen kalteei erantzuteko eta erantzukizun zibila izateko. Aseguru hori 60.000 €koa izango da gutxienez eta hilabete bateko epean ordaindu beharko du, dagokion aseguru-polizaren kopia bat aurkeztuta, interesatuari baimena eman zaiola jakinarazten zaion momentutik.

Zenbateko hori 6 urtez behin berrikusiko du Portuko Agintaritzak KPlaren aldaketa kontuan hartuta.

### **18. artikulua.- Baldintza Orri hauen aplikazioa eta interpretazioa.**

Portuko Agintaritzako zuzendariak eta horretarako eskumena duen pertsonak, izaera orokorrez edo kasu partikular bakoitzean, beharrezko aginduak emango dituzte Baldintza Orri hauek betetzen direla bermatzeko, eta beharrezko interpretazioa egingo dute Portua behar bezala ustiatu dadin.

### **19. artikulua.- Erreklamazioak eta errekursoak.**

Baldintza Orri hauen aplikazioari buruzko erreklamazioak Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluak ebatziko ditu eta ebazpen horiek amaitutzat emango dute administrazio-bidea; dena den, errekursoa aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzi-bidez, dagokion Justizia Auzitegi Nagusian. Tasei buruzko erreklamazioei dagokienez, ekonomia-administrazio bidetik aurkeztu ahal izango da errekursoa.

### **Xedapen Gehigarria.**

Arrantza-ontzietako armadoreek zuzenean jardun ahal izango dute Arrain Freskoaren Saltzaile gisa beren arrantza-produktuekin, betiere Portuko Agintaritzako saltzaileen / armadoreen Erregistroan horretarako baimena badute eta inskribatuta badaude, eta une horretan portuko tasen zenbatekoa ordaindu edo bermatzen badute, betiere aplikagarria zaien Baldintza Orri hauetan xedaturikoari kalterik egin gabe.



**Aldi Baterako Xedapena.**

Baldintza Orri hauek indarrean sartzen direnean beren zerbitzuak eskaintzen dituzten Arrain Freskoaren Saltzaileek Orri hauetan zehazten diren xedapenetara egokitu beharko dute horiek argitaratu eta hiru hilabeteko epean, eta dagokien baimena eskatu beharko dute.

Ez badira aipatutako epean egokitzen, Portuko Agintaritzak dagokion baimena ukatu ahal izango die eta Erregistroan inskribatu gabe utzi ahal izango ditu; horrenbestez, ezin izango dituzte beren jarduerak gauzatu portu-eremuan.